Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4184

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 10ekoa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, 01/10 informazio-eginbideei hasiera emateko agintzen duena.

AURREKARIAK

1.– 2010eko ekainaren 4an, Bilboko Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegiko idazkariaren idatzi bat iritsi zen, faxez, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzara. Idatzi hartan jakinarazi zen Josefina Hierro Rodríguez andrea ez zela lanera etorri 2010eko maiatzaren 13az geroztik; egun horretan, hain zuzen ere, telefonoz deitu zuela mediku-kontsulta zuela adierazteko.

2.– Egin beharreko egiaztapenak egin ondoren, zera ikusi zen: Josefina Hierro Rodríguez andreak ez zuela fitxaketarik egin idazkariak adierazitako egunetik Ebazpen hau eman zen egunera arte. Eta Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzan ez da jaso lizentzia- edo baimen-eskabiderik, ezta hutsune horren justifikagiririk ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.– Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariak eskumena du Ebazpen hau emateko, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horretan zehazten dira, hain zuzen ere, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak, Justizia Administrazioaren zerbitzura lanean diharduten diziplina-espedienteei hasiera eman eta izapideak egiteko, zein funtzio izango dituen.

II.– Martxoaren 26ko 60/1996 Dekretua, Bitariko Transferentzia Batzordearen 1996ko otsailaren 16ko Akordioa onartzen duena, eta martxoaren 15eko 514/1996 Errege Dekretua, Estatuko Administrazioaren funtzioak eta zerbitzuak, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileei buruzkoak, Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeari buruzkoa. Transferentzia hori irmoa denetik aurrera, erkidego honi dagokio gai horren inguruko funtzioak betetzea, uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan –abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak emandako idazkeran– ezarritako moduan (2003-12-26ko BOE, 309. zk.).

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4184

RESOLUCIÓN de 10 de junio de 2010, de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, por la que se ordena la apertura de diligencias informativas 01/10.

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Con fecha 4 de junio de 2010, tiene entrada, vía fax, en la Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal, escrito del Secretario del Juzgado de Instrucción n.º 4 de Bilbao, por el que comunica que doña Josefina Hierro Rodríguez, no se ha incorporado desde el día 13 de mayo de 2010, fecha en la que telefoneó al mencionado Juzgado, a fin de informar su asistencia a consulta médica.

2.– Realizadas las comprobaciones oportunas, se observa la ausencia de marcajes horarios de doña Josefina Hierro Rodríguez desde la fecha indicada por el Secretario a la fecha de la emisión de la presente Resolución, sin que conste en la Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal, solicitud de licencia o permiso alguno, ni documento justificativo de la ausencia.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.– La Directora de la Oficina Judicial y Fiscal es competente para dictar la presente Resolución, conforme a lo dispuesto en el artículo 12 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública, que determina las funciones que ejerce la Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal en materia de incoación y tramitación de expedientes disciplinarios del personal al servicio de la Administración de Justicia.

II.– El Decreto 60/1996, de 26 de marzo, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 16 de febrero de 1996 y el Real Decreto 514/1996, de 15 de marzo, sobre traspaso de funciones y servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de medios personales al servicio de la Administración de Justicia. A partir de la efectividad de dicho traspaso, corresponde a esta Comunidad el ejercicio de las funciones en dicha materia en los términos establecidos en la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, en su actual redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre de 2003 (BOE n.º 309, de 26-12-2003).

III.– Ondoko xedapen hau aplikatu behar da: Botere Judizialaren Lege Organikoaren VI. Liburuko IX. Titulua –abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak emandako idazkeran–, zeinetan ezartzen baita Justizia Administrazioaren zerbitzura lanean diharduten funtzionarioen kidegoen eta beste langile batzuen diziplina-erantzukizuna. Erantzukizun hori izapidetuko da Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen diziplina-araubideari buruzko Erregelamendu Orokorra onartu zuen uztailaren 1eko 796/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (2005eko uztailaren 23ko BOE, 175. zk.).

Laugarrena.– Zehazki, adierazitako Errege Dekretuaren 21. artikuluak hau ezartzen du:

«21. artikulua.– Aurretiazko informazio-aldia.

Salaketan ez badago nahikoa datu artxibatu egin behar dela edo espedienteari hasiera eman behar zaiola erabakitzeko, edo espedienteari hasiera emateko organo eskumendunak beharrezkotzat jotzen badu, aurretiazko informazio-aldia egitea erabakiko da; informazio-aldi hori isilpekoa izan ahalko da. Aldi horrek isilpekoa izan behar badu, hori erabakitzen duen ebazpenean arrazoiak adierazi behar dira.

Organo eskumendunak informazioa eska dakieke egoki irizten dituen pertsona edo organoei (...)».

Azaldutakoagatik, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurrekarietan adierazitako inguruabarretan oinarritua, 01/10 informazio-eginbideei hasiera emateko agintzea.

Bigarrena.– Josefina Hierro Rodríguez andreari agintzen zaio, hamar eguneko epean, egiaztagiriak aurkez ditzala, 2010eko maiatzaren 13az geroztik ez baita lanera agertu. Eta ohartarazten zaio, adierazitako epe horretan aurkezten ez baditu, diziplina-erantzukizuna eta soldata-murrizketa ezarri ahal izango zaiola.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 10a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

III.– Resulta de aplicación, el Título IX del Libro VI de la Ley Orgánica del Poder Judicial, en su redacción actual dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, en el que se establece la responsabilidad disciplinaria de los Cuerpos de Funcionarios al Servicio de la Administración de Justicia y de otro personal, la cual será tramitada conforme a lo establecido en el Real Decreto 796/2005, de 1 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General de régimen disciplinario del personal al servicio de la Administración de Justicia (BOE n.º 175, de 23 de julio de 2005).

Cuarto.– Concretamente, el artículo 21 del mencionado Real Decreto establece:

«Artículo 21.– Información previa.

Cuando de la denuncia no resulten elementos de juicio suficientes para decidir acerca de su archivo o de la incoación del expediente, o cuando lo juzgue preciso el órgano competente para la incoación, acordará la práctica de una información previa, que podrá tener carácter reservado. Cuando deba tener carácter reservado, la resolución por la que así se acuerde deberá ser motivada.

El órgano competente podrá solicitar información a las personas u órganos que considere oportuno. (…)».

Por lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Ordenar la apertura de Diligencias informativas 01/10, respecto de las circunstancias referenciadas en los Antecedentes de Hecho de la presente Resolución.

Segundo.– Ordénese a doña Josefina Hierro Rodríguez la presentación, en el plazo de 10 días, de documento acreditativo de la ausencia al puesto de trabajo desde el 13 de mayo de 2010, advirtiéndole que la no aportación, en el plazo indicado, de la documentación instada, puede ser objeto de responsabilidad disciplinaria y de descuento de retribuciones.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de junio de 2010.

La Directora de la Oficina Judicial y Fiscal,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.